



EUSKARA JENDEA

Aniztasunaren bidean

B MAILA irakaslearen kaiera

“EUSKARA JENDEA” DOKUMENTAL SORTA

Zein izan da gure hizkuntzaren ibilbidea historian zehar? Nola bizi izan du gure jendeak euskara? Nolako eragina izan dute hurbildu zaizkigun herri eta kultura desberdinek?...

“Euskara jendea” dokumental sortak galdera horien eta beste hainbat erantzunak eskaini nahi ditu. Horretarako, Xamarrek 2006an Pamiela etxean argitaratutako izenburu bereko liburua hartu du abiapuntu, eta liburuak bezala, modu ulerterraz eta atseginen gure hizkuntzak eta gure jendeak eskuz esku egin duten ibilbide luzera hurbiltzea du helburu.

Lana 45 minutu inguruko sei dokumentalek osatzen dute:

- I. HISTORIAREN ATARIAN
- II. ERROMAKO INPERIOAN
- III. ANIZTASUNAREN BIDEAN (ERDI AROA)
- IV. MUGETAN GAINDI (ARO MODERNOA)
- V. GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN (1800-1945)
- VI. MUNDUA OSATZEN


KAIER DIDAKTIKOAK ETA EUSKARA ESKOLAK

Dokumental hauek euskara ikasleei hurbiltzeko asmoz, kaier didaktiko batzuk sortu ditugu. Kaieretan dokumentaletako kontakizunei jarraitzeko eta, horrekin batera, hainbat eduki lantzeko jarduerak eskainiko zaizkie B eta C mailako ikasleei.

Jarduerak banaka (ikasleak bere kabuz) egiteko moduan diseinatuta daude, eta horrela aurkeztu dira ikasleen kaieretan. Baina, nahi izanez gero, euskara ikastaldeetan ere erabili ahal izango ditugu lan hauek. Horrena erabili nahi izanez gero, kontuan hartu ondoko jarraibide hauek:

- Irakurri arretaz irakaslearen gidako jarraibideak eta oharrak eskolarako jardueren helburuak argi izateko, eta jarduera horien inguruko ohar interesgarriak ezagutzeko.

- Jarduera bakoitza proposatu aurretik, irakurri arretaz ikaslearen liburuko jarraibideak.

- Jardueren enuntziatuei jarraiki, bidera itzazu eskolako lanak: lan batzuk banaka egitea proposatu, eta  sinboloa agertzen denean, ikasleek talde lanean jarri.

ANIZTASUNAREN BIDEAN (B MAILA)

Orri hauetan “Euskara jendea” sortako “Aniztasunaren bidean” dokumentalaren ikusketa eta lanketa euskara eskolan bideratzeko argibideak dituzu. Dokumental honek V. mendetik XV. mendera bitarteko garaira eramango gaitu, eta mende haietan euskara jendeak bizi izan zituen aldaketak begien aurretik jarriko dizkigu.

Eskolak planifikatu aurretik, kontuan hartu ondoko hauek:

- Lan osoaren iraupena, dokumentalaren ikusketa barne, hiru ordotara luza daiteke. Balizko iraupen hori gogoan izan beharko duzu zeure eskolen ordutegira egokitzeko orduan.

- Ikaslearen kaieretan jarduera guztiak banaka egiteko moduan aurkeztuta daudenez, jarduera batzuk, nahi izanez gero, etxean egitea proposatu ahal izango duzu.

DOKUMENTALA IKUSI AURRETIK

A. Ikusiko den dokumentala eta egingo diren lanak ikasleei labur aurkeztu. Aurkezpena bideratzeko ikaslearen liburuko 3. orria erabil daiteke.

B. ERDI AROARI BURUZ

1. “Erdi Aroari buruz” ariketa egin (ikas. lib., 4, 5 eta 6. orr.).

HELBURUA: Ariketa honen helburua ikasleak dokumentala erosoago ikusteko prestatzea da. Horretarako, garaiari buruzko informazioa eskainiko zaie, eta informazio hori antolatzen lagunduko zaie.

GOGOAN IZAN: Ariketa honetan dokumentala ikusi ondoren ikasleek egin beharko duten eskemen ereduak eskaintzen da.

2. “Aymeric Picaud eta euskaldunak” ariketa egin (ikas. lib., 7. or.).

3. “Nolakoa ote zen orduko Euskal Herria?” ariketa egin (ikas. lib., 8. or.).

HELBURUA: Ariketa bi hauen helburua dokumentalarekiko ikasleen interesa piztea edota sendotzea da. Horretarako, euren ezagutzak eta usteak martxan jarriko ditugu.

DOKUMENTALA IKUSI BITARTEAN

C. APUNTEAK HARTU

4. “Apunteak hartzeko aholkuak” ariketa egin (ikas. lib., 9. or.).

HELBURUA: Ariketa honen helburuak bi dira: batetik, dokumentala ikusi bitartean ikasleen interesa zuzentzea eta bideratzea, eta bestetik, informazioa modu antolatuan jasotzeko apunteak hartzen trebatzea.

GOGOAN IZAN: Apunteak hartzen trebatzea ikasleentzat oso lagungarria izan daitekeenez, gogora zaitetz teknika hau beste eskoletan ere proposatzen, eta komentatu ikasleekin honen balioa.

DOKUMENTALA IKUSI ONDOREN

D. KONTATZEKO ESKEMA

5. “Eskema urratsez urrats” ariketa egin (ikas. lib., 11, 12 eta 13. orr.).

HELBURUA: Gaiari buruzko informazio esanguratsua antolatzea eskema egokiak erabiliz, eta eskema horiek egiten trebatzea.

GOGOAN IZAN: Apunteak hartzeko aholkuekin esan dugun bezala, eskema egokiak egiten trebatzea ere oso interesgarria izan daiteke ikasleentzat. Horregatik, teknika hau beste eskoletan proposatzea, eta ikasleekin honen balioa komentatzea ariketa egokiak izan daitezke.

Eskemak egin eta komentatu ondoren, eskatu ikasleei aukeratu dituzten puntuei buruzko azalpenak idazteko, eta azalpen horiek jaso eta zuzendu.

E. ONDORIOAK ETA AUTO-EBALUAZIOA (ikas. lib., 14. or.).

Ikasleek auto-ebaluazio fitxa banaka bete ondoren, balorazioa guztion artean egin.

HELBURUA: Ikasleek ikusitako dokumentala eta egindako lanak baloratzea.